

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak ikasketak artistikoak zabaltzeko 21 beka eman ditu 2015-2016 ikasturterako

Hamar laguntza artistentzako berriak dira eta, hamaika, ikasketak luzatzeko

Jueves, 20 de agosto de 2015

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak 21 artista nafarri beka eman dizkie beren ikasketak zabaltzeko aukera izan dezaten 2015-2016 ikasturtean. 262.151,72 euroko laguntza horietan 10 beka berri eta ikasketen 11 luzapen sartzen dira.

Deialdira 49 hautagai aurkeztu dira.

Hamar beka berriak osorik bete dira; bi arte plastikoetarako, beste bi ikus-entzunezko arteetako, hiru arte eszenikoetarako eta beste hiru musikarako. Gainera, jadanik hasitako ikasketak luzatzeko aukera eman zaie 11 bekaduni; haietatik 5 Arte Eszenikoetakoak dira (3 dantzan eta 2 antzerkian), 5 Musikan eta 1 Arte Plastikoetan.

Diru-laguntzen helburua –duela 25 urtetik ematen direnak– ikasle nafarrek ikasketak artistikoen prestakuntzari jarraipena ematen laguntzea da (30 urte bete arte) ospe handiko Espainiako edo atzerriko zentroetan. Haiei esker, bekadunek Bartzelona, Madril, Bilbo, edo Austria, Erresuma Batua, Alemania, Holanda, Suitza eta AEBetako zentroetan eskolak jaso ahalko dituzte.

Eskaera guztiak, berriak nahiz luzapenak hainbat diziplinako aditu-batzorde batek ebaluatu ditu; hark beka berri bat lortzeko garaian aurkeztutako hautagaien maila artistiko handia azpimarratu du, eta aurreko ikasturtean uzapena eskatutako bekadun guztiek egindako aprobeztamendu handia; horrez gain, hainbat xiziplinatan izandako bilakaera azpimarratu du, eta hasitako prestakuntzari jarraipena emateko zer-nolako ahalegina eta motibazio handia duten ere.

Onuradunak

Jarraian, hainbat modalitate artistikotako [onuradunak](#) zehazten dira:

Arte Eszenikoak:

- Dantza klasikoa: Ainhoa Hermoso Legaz eta Ioar Labat Berrio,
- Dantza garaikidea: Akira Yoshida Michel eta Maddi Muñoz Capellán
- Dantza espainiarra: Eneko Jiménez García eta Ángela Jaurrieta Saralegui.

Antzerkia: Itsaso Echeverría Monreal eta Maialen Díaz Urriza.

Arte plastikoak: Irati San Román Aizpurua, Amaya Suberviola

García, Miguel Ayesa Usechi.

Ikus-entzunezko arteak: Raúl García Egüés eta Ione Atenea Lameiro Garayoa

Musika: Iñigo Berrade Mikeleiz, Alberto Belzunegui Moreno, Aingeru Ochotorena Labairu, Marta Ramírez García-Mina, Ana García Caraballos, Martín Soler Ruiz, Manuel Escauriaza Martínez-Peñuela, Alejandro Olóriz Soria.

Gala eta Eguberrietako erakusketa

Bekak ematearekin batera, onuradunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren zabalkunde artistikoko programetan laguntzea dakar.

Xede horretarako, Eguberrietan, Baluarte Auditoriumeko Ganbera Aretoan gala bat egingo da, eta bertan arte eszeniko, musika eta ikus-entzunezko bekadunen emanaldiekin gozatu ahal izango da. Gainera, Eguberrietan, Huarteko Arte Garaikidearen Zentroan, arte plastikoetako bekadunek egindako lanez osatutako erakusketa bisitatu ahalko da.